

LASARTE-ORIAKO UDALBATZARI

GAROÑAKO ZENTRAL NUKLEARRA EZ DEZATELA BERRIZ ZABALDU

Segurtasun Nuklearreko Kontseiluaren (CSN) osoko bilkuruak mahai gainean ditu Santa Maria de Garoñako zentral nuklearra berriz zabaltzearen inguruko hainbat neurri, erabakitzeke onartzen dituen ala ez.

Hauteskunde-kanpainen alderdi guztiek Euskadin adierazi zuten Garoña ixteko konpromisoa, bai eta Euskadiko Ppren ordezkariak ere. Alabaiona, haien jardunak erakusten du adierazpen horiek ez dutela markatzen jarduneko gobernuaren ibildide-orria.

Ppk ditu CSNn kide gehien, joan den udan kontrola hartu zuelako bidegabeki. Ildo berean, Diputatuen Kongresuak erabaki zuen arren Bartzelonako Pprekin lotura estua duen Javier Dies Lloveraren izendapena blokeatzea, orain jardunean ari den gobernuak ez zion erabaki horri jaramonik egin eta bere gehiengo osoa bailatu zuen izendapena ezartzeko.

Horregatik, Udalbatzari aurkezten zaizkio akordio hauek:

1. Lasarte-Oriako Udalbatza Garoñako zentral nuklearra berriz zabaltzearen aurkako jarrera irmoa adierazi nahi du.
2. Lasarte-Oriako Udalbatzak salatzen ditu jarduneko gobernuak gai honen inguruan ematen ari den pausoak, abenduaren 20ko hauteskundeetako emaitzekin ez baitu legitimitate demokratikorik.
3. Lasarte-Oriako Udalbatzak eskutzen dio Espainiako Estatuko gobernuak izango denari Garoñako zentral nuklearra guztiz ixteko eta desegiteko.
4. Lasarte-Oriako Udalbatzak eskatzen dio Espainiako estatuko gobernuak izango denari eredu energetiko berria lantzeko, eredu demokratiko eta deszentralizatua, aurrezpena, eraginkortasuna eta energia berriztagarriaren ekoizpena izango dituen oinarri.

Lasarte-Oria, 2016ko urtarrilaren 27a

Ahal Du Lasarte-Oria Puede

